

## ALDUDEKO MENDIGUNEA

Deskribapena eta kokapena	Orzanzurieta mendia (1.570 m) nagusitzen den mendigune zaharra. Nafarroa Beherean kokatua, Baigorriko haranaren udalerrri osoa hartzen du eta Espainia du mugakide hegoaldean eta ekialdean.
Azalera	17 440 ha
Babes-estatusa	KBE - NATURA 2000 (FR7200756)
Beste babes batzuk, eskualde-mailakoak edo nazionalak	Interes Ekologikoko Naturagunea, Garrantzizko Eremua Hegaztien Kontserbaziorako.
Erabilera nagusiak	Nekazaritza eta abeltzaintza nagusiki. Basoguneez % 20 hartzen dute.
Titulartasuna	% 54 pribatua eta % 46 publikoa.
LIFERen helburu diren habitatak	<b>(4020)</b> <i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralixen</i> txilar heze atlantikoak, <b>(4030)</b> txilar lehor europarrak, <b>(6210)</b> belardi lehor seminaturalak, <b>(6230)</b> formazio belarkarak <i>Nardusekin</i> , <b>(6410)</b> belardiak/ihidiak <i>Molinia caerulea</i> rekin lurzoru hezeen gainean, <b>(6430)</b> megaforbio eutrofo higrofiloak, <b>(6510)</b> altitude baxuetako sega-belardi txiroak, <b>(7110)</b> lintzura alkalinoak.

Nekazaritza eta, batik bat, abeltzaintza dira Baigorriko haraneko lurraldean, paisaian eta ekonomian nagusi. Esneko ardian nagusiki oinarrituak, ardia/behia ustiapen-sistema mistoak erabiltzen dira oro har. Hazle batzuek aniztu egin dute euren jarduera gizentzeko euskal txerri-aziendekin.

Abeltzaintzaren sektorea ia soilik baliabide naturalen ustiapenean oinarritzen da: baserrien inguruetako belardiak neguan eta mendiko herri-larreak udan. Malda piko nabarmenak eta abeltegietan eskulana murriztu izana muga bat izan arren, larreen mantentze-praktikak (nekazaritzako erreketak, garo-mozketa) oso sustraituta daude oraindik.

Baigorriko harana bertako lur malkartsuagatik nabarmentzen da. Izan ere, altitudea 1.200 metrotik gorakoa ez bada ere gunerik garaienean (Adarza), maldak oso handiak izan ohi dira. Sastraka-eremuengatik bereizten da paisaia –abeltzaintzarako erabiltzeari utzi izanagatik– eta udako larreen goialde bat, basoak eta herritik gertu dauden belardi-lurrak dira gainerakoak.

Lehentasunezko habitat naturalak, eremu hau Natura 2000 izaten lagundu dutenak, haltzen eta lizarren baso alubialak dira, *Erica ciliaris* eta *Erica tetralixen* txilar heze atlantikoak eta zohikaztegiak.

Bestalde, Europar Batasunaren intereseko 8 animalia-espezie identifikatu dira eremu honetan, haietako bat, *Rosalia alpina*, lehentasunezko zat jotzen dena. Beste intsektu

xaprosiliko batzuen presentzia nabarmentzen da, baita intereseko lau saguzar-espezieena ere.

LIFE proiektuaren inguruko jarduerak

- Bazka-ekoizpenaren jarraipena habitatean (4030), maneiu-egoera desberdinetan (erreketak, belar-sastraken garbitzea, edo azienda-karga).
- Landarediaren eboluzioaren jarraipena Europar Batasunaren intereseko habitatak kudeatzeko modu desberdinen arabera.